

26/11 >> 20/12

NOËL À
CIBOURE !



EGUBERRI
ZIBURUN!

EGUBERRI DA ZIBURUN!



“

2024an, zinema dugu ospakizun honen lema: urte bukaera honetan, ikuskizunak, irakurketak eta ateleria gehienak, 7. arteari zaizkio gehien bat eskainiak izanen. Urte bukaerako besta hauetan, pantailaren gibelego aldera pasako zarete zinegintzaren mekanikeria osagaiak ezagutzeko edota tauladaren gainera iganen film ezagunen eszena batzuk antzetzeko!

Musika, zirkoa, dantza, irudi bizidunak eta sorkuntza ateleriak eskainiak izanen zaizkizue zinemaren mundu mirezgarrian murgil zaitzeten!

Emilie Dutoya, *Kultura, ondarea eta elkarte biziaren ardura duen 3. axuanta*

Fanny Lascube, *Hizkuntza politikaren ardura duen kontseilari delegatua*”



Asta. 11/26	17:30
Ostg. 11/28	19:00
Astz. 12/04	14:00
Astz. 12/04	16:00
Ostg. 12/05	19:00
Lar. 12/07	9:30
Lar. 12/07	15:00
Lar. 12/07	18:00
Iga. 12/08	16:00 & 18:00
Astz. 12/11	11:00
Astz. 12/11	15:00
Osti. 12/13	19:30
Lar. 12/14	10:30
Lar. 12/14	15:00
Iga. 12/14	10:00–13:00
Iga. 12/15	16:00
Asta. 12/17	18:00
Astz. 12/18	11:00
Astz. 12/18	14:00
Astz. 12/18	16:00
Ostg. 12/19	19:30
Osti. 12/20	18:00

AGENDA

Ipuinak & zinema	Mediatekan	FR
Dok-aren hilabetea	Mediatekan	FR
Zurezko Eguberriko izeia ateteria	Pilota plazako xapitoan	FR
Eguberriko apainketen fabrikatze ateteria	Pilota plazako xapitoan	FR
Afterwork Jokoak eta arno dastaketa	Pilota plazako xapitoan	FR + EUS
Anim'lecture Libreplumerekin	Mediatekan	FR + EUS
Irakurketa kontatua Maddi Zubeldiarekin	Pilota plazako xapitoan	EUS
Film musika Quizz Estudiantinarekin	Pilota plazako xapitoan	FR + EUS
Happy Manif (Walk on the love side) ikuskizuna	Errekoletak AOIZ	FR
Elur orein ttipia ateteria	Pilota plazako xapitoan	FR
Fenakistiskopoa bat sortzeko ateteria	Pilota plazako xapitoan	FR
Versant Vivant ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan	Hitzik gabe
Mash'up ateteria	Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan	FR
Stop Motion ateteria	Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan	FR
Bibliomobile	Pilota plazako xapitoan	FR + EUS
Film soinu efektu eta bikoizketa ateteria	Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan	EUS
Smile ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan	FR + kantuak IN-ez
Thaumatrope ateteria	Pilota plazako xapitoan	FR
Elur pilotak fabrikatzeko ateteria	Pilota plazako xapitoan	FR
Mahai erdiko bat sortzeko ateteria	Pilota plazako xapitoan	FR
Jump Cut ikuskizuna	Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan	Hitzik gabe
Olentzeroren desfilea	Abiatzea Larraldenia portutik	EUS

AMETS EGITEKO ETA LILURATZEKO IKUSKIZUNAK



ABENDUAREN 8AN IGANDEAREKIN 16:00 ETA 18:00ETAN

HAPPY MANIF (WALK ON THE LOVE SIDE)

FR

David Rolland (Nantes - 44)

Hiriko ibilaldi koreografikoa zinema gaiaren inguruan

Batere ez asaldatzeko baina dantzatzeko manifa arrunt mota berriko honetan, egiazko neurriko jokoan aritzeko desfile alai batean parte hartuko duzue.

Kaskoa belarrien gainean emanik, soinu bandako argibideei jarraikiz, berehala hiriko partizio berezietako baten interprete bilakatuko zarete.

Errekoletako kaperatik abiatuz, Ziburuko leku ospetsu hau eta honen auzotegia (berriz) ezagutuko duzue. Abenduaren 8an, ahalmen guzietako lekua (berriz) bilakatuko da hiria, topaketa, berriz elkartzeko eta bapateko maitemintze guziak gertatzen diren eremua. Zineman, beti ederragoa da!



📍 Abiatzea Errekoleta AOIZ-eko kaperatik

👤 Denei irekia 8 urtetik aitzina

🕒 45 min et oren 1 artean

Izena aitzinetik emanez



ABENDUAREN 13AN OSTIRALÄREKIN 19:30ETAN

VERSANT VIVANT

FR

L'Observable (Arudy – 64)

Kontzertu marraztu eta biziduna

Musika organiko eta hipnotikoak kulunkaturik, mendiko izakiak lokartzen dira: gizakiak, animaleak, etxeokak edo basak, harrapakinak edo harrapariak, denak ametsen bitartez elkartzen dira egoz etorri meni baten karietara.

Musika ikuskizun sentibera eta kontenplatibo honekin, animazio antzetsu batzuen bitartez bizira ekartzen dituen natura basako ingurumenak marrazten ditu Émilie Tarascou-k, kamerak filmaturik. Ameskeria bizidun honekin batera, marrazkiari jarraituz dioten aireko doinuez egin musika zuzenean sortzen du. Soka tximikatu edo torratuak, flautak, teklak, beat..., hamar bat tresna erabiltzen ditu tauladaren gainean.

Naturaren erritmoez oharitzeko gomita... gozo-gozoki.

OARA-rekin lankidetzan



- 📍 Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan
- 👤 Denei irekia 9-6 urtetik aitzina
- 🕒 50 min

Izena aitzinetik emanez



© Vincent Guilhem Lataillade

ABENDUAREN 17AN ASTEARTEAREKIN 18:00ETAN

SMILE

FR

OCO konpainia



Emozioei buruzko Zine-kontzertu berezia

Charlie Chaplin-en filmez irudikaturik eta off boz imitaezinak eta silueta arras bitxiak alaitua, ttipien eta handien sentipenak baliatzen ditu ikuskizunak: ilunduratik pozara, sorpresatik, suminduratik, beldurratik eta nazkatik iraganez, abentura bitxi bat bizitzera presta zaitezte!

Smile obran, emozio bakoitza balioan ezartzen du kantu edo melodia batek edo Chaplin-en filmetako eszena batzuek, olerkia, sentiberatasuna eta umorea nahasiz, prefosta!

📍 Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan

👤 3 urtetik aitzina

🕒 40 min

Izena aitzinetik emanaz



© Yohan Blanco

ABENDUAREN 19AN OSTEGUNAREKIN 19:30ETAN

JUMP CUT

Double Take Cinematic Circus konpainia

HITZIK
GABE

Zirkoa eta zinemaren gurutze bidean den ikuskizuna

Tim Burton, Terry Gilliam eta Michel Gondry bezalako film egileen lanetik abiatu *Jump Cut* obra, amerikar fantasia frantses surrealismoarekin nahasten duen zirko ikuskizuna da.

Pindartsuak eta melodrama guti erabiliz, haien egunerokoa beste edozoin bikoteren gisara bizitzen dute iduriz Summer et Raphaëlek. Musika entzuten, kafea edaten dute, mozkortzen dira, sofaren gainean jauzika ari dira, lanparari lotzen dira, telebista begiratzen dute... usaiako gauza guztiak orenen buru.

Eta egun batez, haien bizia betirako aldatuko duen telefono dei bat jasotzen dute!

Sofa tranplino bat, tren akrobatiko bat eta kea botatzen duen herensuge bat erabiliz kontatu zinezko istorioa.

📍 Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan

👤 Denei irekia 6 urtetik aitzina

🕒 45 min

Izena aitzinetik emanez



**ABENDUAREN 20AN
OSTIRALAREKIN
18:00ETAN**

OLENTZEROREN DESFILEA

*Ziburu Euskaldun eta
Kaskarotenea Ikastolarekin*

Hitzordua abenduaren 20an,
18:00etatik goiti finkatzen
dizuete Ziburu Euskaldun
eta Kaskarotenea Ikastolak,
Olentzero kantuz ospatzeko.

Mari Domingiri ongi etorria
portuan eginen zaio eta
ondotik, desfilea pilota
plazara buruz abiatuko da;
Ziburu zaharreko karririk
kurritzeko ondoren. Etxean
gelditzen bazarete, belarriak
luza eta leihoak zabal itzazue,
Olentzero, neguko solstizioari
harrera eskaintzeko, berri
onak eta berrikuntza
iraganaraz baitzikizue.

📍 Abiatzea Larraldenia
portutik

👤 Denei irekia

Sartzea urririk



IPUINAK & IRAKURKETAK

ABENDUAREN 26AN ASTEARTEAREKIN 17:30ETAN

IPUINAK & ZINEMA FR

Eclats de mots

Zuen belarriak handiki irek itzazue eta ipuin aldiari jarraiki ondotik « balea eta bare kurkuilua » filma ikusteko.

Itsas bare kurkuilu ttipi bat aspertzen da portu zaharrek arrokaren gainean eta mundua kurrituko duela amesten du. Egun batez, xibarta bale handi batek proposatzen dio munduko itsasoetan zehar bidaiatzera eramatea. Usaiak kanpoko adiskidetasun honek naturaren barnako sekulako odisean murgiltzen gaitu, izugarri ttipitik, izugarri handira.

📍 François Rospide mediateka

👤 Familiak eta 5 urtetik aitzinako haurrak



Izena aitzinetik emanez



ABENDUAREN 28AN OSTEGUNAREKIN
19:00ETAN

Dok-aren hilabetea
Raphaël PILLOSIO-k zuzendu

LES MOTS QU'ELLES EURENT UN JOUR

filmaren proiektzioa

« 1962an, Frantzian presondegitik ateratzen diren aljeriar emazte militanteak filmatzen ditu Yann Le Masson-ek. 50 urte berantago; soinu banda desagertua delarik, emazte hauen gibeletik abiatzen naiz. »

Haien isilpeko isotorioaz ikerketa. Haien desagertzea irudikatzen eta, betirako, bizirik atxitzen dituen zinemaz entsegu bat.

Filmaren egilea hor izanen da.

L'Agence Livre Cinéma & Audiovisuel en Nouvelle-Aquitaine & Biblio64-rekin partaidetzan



📍 François Rospide mediateka

🕒 15 urte aitzinako nerabe eta helduak



ABENDUAREN 7AN
LARUNBATAREKIN 9:30ETAN

ANIM'LECTURE

Libreplumerekin

Goxoan iratzartzeko elkar gaitezen, istorioak eta ipuinak kontatuz! Arreba, ahizpa eta anaia handiak ongi etorriak dira!

📍 François Rospide mediateka

🕒 0-4 urte

FR, Arabieraz
(VOSTFR)



Izena aitzinetik emanaz

Izena aitzinetik emanaz

ABENDUAREN 7AN
LARUNBATAREKIN 15:00ETAN

EUS


IRAKURKETA KONTATUA

Maddi Zubeldiarekin

« Gruffalo bat? Zer da gruffalo bat? »

Maddi Zubeldiarekin segi itzazue adoretsua bezain abila den sagu baten abenturak!

2018an zinemarako euskaraz egokitu Julia Donaldson-en liburua da Gruffalo.



📍 Pilota plazako xapitoan

🕒 5 urtetik aitzina

Izena aitzinetik emanez

ABENDUAREN 15EAN IGANDEAREKIN 10:00ETATIK 13:00ETARA

BIBLIOMOBILEA AGERTUKO DA IGANDEKO MERKATUAN

FR EU

Eguberri igurikatzeko, mediateka hor da! Lasaiki planta zaitetze Fabrique Affaméeren xapitopean. Jostatzeko, irakurtzeko eta amets egiteko parada eskainia izanen zaizue!

10:00etatik 13:00etara, Zurezko joko erraldoiekin eta gizarte jokoetan jostatzeko parada eskaintzen dizue Bidaxuneko ateleriak.

11:00etan, Contes en baladeren istorio tapiza zoragarrien inguruan bilduko gara!

📍 Pilota plazako xapitoan

🕒 Denei irekia

Sartzea urrik



EGUBERRI SORTZAILE ETA PARTEHARTZAILEA

ABENDUAREN 4AN ASTEAZKENAREKIN
14:00ETAN

EGUBERRIKO ZUREZKO IZEI ATELERIA FR

Aspertuak zarete lurrera erori orratzez eta zuen burua hobendun sentitzen duzue urte guzietan izei gazte bat mozteaz, zenbait aste berantago botatzeko? Eta aurten izei eko-arduratsua erabiltzen hasten bazinate? Zatozte zuen zurezko Eguberriko izeia egitera. Aterabide iraunkorra, estetikoa eta merkea zuen etxe barna apaintzeko Eguberriko besten garaian!

Zalantzak utz itzazue eta etxean dituzuen apainketa osagai ttipi batzuk, pinaburuak ekar zuen izeiak parekorik izan ez dezan.



📍 Pilota plazako xapitoan

👤 10 urtetik aitzina edo heldu batekin etorritz

Izena aitzinetik emanez

ABENDUAREN 4AN ASTEAZKENAREKIN 16:00ETAN

FR

EGUBERRIKO APAINKETEN FABRIKATZE ATELERIA

Zuen izei gaztea alegeratzeko, zintzilikatzeko apainketak errekupe' materialiaz gurekin sortzea proposatzen dizuegu. Zatozte familia artean Eguberriko artilezko iratxo ttipiak moldatzen ikastera!

📍 Pilota plazako xapitoan

👤 A partir de 6 ans

Sur inscription



JEUDI 5 DÉCEMBRE À 19H FR EUS

AFTERWORK JOKOAK ETA ARNO DASTAKETA

Lehen aldiko urte bukaerako besten karietara, hemengo arnoen dastaketaren inguruko gaudi batera gomitatzen zaituztegu!

Sarde Sardexka eta Ascain en jeux elkarteek harrera eskaintzen dizuete Fabrique Affaméeren xapitopean, tokiko arnoen inguruko lagun giroko gaudi jostagarria gozatzeko.

Gauza berriak ezagutzeko eta dastatzeko gaudi ederra!

📍 Pilota plazako xapitoean

👤 Helduak



Izena aitzinetik emanez

ABENDUAREN 7AN LARUNBATAREKIN 18:00ETAN

FILM MUSIKA QUIZZ FR EUS

Ziburuko Estudiantinarekin

Fabrique Affaméeren xapitopean sekulako gaudia eskaintzen dizue Ziburuko Estudiantinak: taldea zatozte film musikei buruzko quizz batera parte hartzera! 5 taldeak lehia jarriko dituzten 3 froga, irabazleak saritzeko, orduan berrikusketetan has zaitezte sariak baitira irabazteko!

Talde batean ez baduzue sartu nahi baina musikak alaitu gaudi libertigarria iragan nahi baduzue, ikusle gisa ere hurbil zaitezketek!

📍 Pilota plazako xapitoean

👤 Denei irekia

Izena aitzinetik emanez



ABENDUAREN 11N ASTEAZKENAREKIN 11:00ETAN

ELUR OREIN TTIPIA ATELERIA FR

Haur ttipienek ere parte hartzen ahalko dute, jostatuz, Eguberriko etxearen apainketan.

Zatozte zuek ere haiekin zintzilikatzeko elur orein ttipiak egitera!



Izena aitzinetik emanez

- 📍 Pilota plazako xapitoan
- 👤 2-5 urtekoentzak

ABENDUAREN 11N ASTEAZKENAREKIN 15:00ETAN


PHENAKISTISKOPO BAT SORTZEKO ATELERIA FR

Begi sare jarraitutasun printzipioan datzan jostailu optikoa da fenakistiskopoa, zinemako pelikularen gisara. Arrunt berdinak ez diren marrazki segida batetik abiatuz, animazio efektuak errazki sortzen laguntzen du.

Zatozte honela animazio filmaren oinarritzko printzipioak ezagutzera zuen marrazki bizidun propioa papera eta arkatz batekin bakarrik sortuz!

- 📍 Pilota plazako xapitoan
- 👤 10 urtetik aitzina

Izena aitzinetik emanez



ABENDUAREN 14AN LARUNBATAREKIN 10:30ETAN

MASH'UP ATELERIA FR

Bideo muntaketaren oinarriak ezagutzeko Mash'Up ateleria proposatzen dizue Cinévasion elkarteak.

Hemen ez duzue ordenagailu edo logizial zailik atzemanen, aski da soinu bat edo irudi bat irudikatzen duten kartetatik bat Mash'Up mahaiaren gainean pausatzea bideoa automatikoki irakurtzeko pantaila batean. Ikas ezazue zuen filma muntatzen, irudi eta soinu lagin banku bati esker!

📍 Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan
👤 8 urtetik aitzina

Izena aitzinetik emanaz

ABENDUAREN 14AN LARUNBATAREKIN 15:00ETAN

STOP MOTION ATELERIA FR


Dena jakiteko animazio zinemako gibelaldeaz: ateleria honetan, « lehengoa » bezala izendatu irudiz irudiko animazio filmaren teknika ikas ezazue.

Animazio filmaren gibelaldea erdi ikusten uzten duen ateleria jostagarria, zinemaren aurkikuntza eta plazera uztartzuz aldi berean.

Zuen smartphone edo tauleta ekar ezazue nahi baduzue.

📍 Guy Poulou erabilera anitzeko esparruan
👤 8 urtetik aitzina

Izena aitzinetik emanaz



ABENDUAREN 15EAN IGANDEAREKIN 16:00ETAN

FILM SOINU EFEKTU ETA BIKOIZKETA ATELERIA

EUS

Abenduaren 15ean, igandearekin, Binahi elkarteak filmak parodiatzera, pertsonaien bozak bikoiztera baina baita irri egitera, soinuak sortzen eta zuetariko bakoitzaren artista zatia ezagutzera ere gomitatzen zaituzte!

Zineman boza eta soinu efektuaren lanak duen garrantziaz oharrarazten duen ateleria jostagarria.



📍 Guy Poulou erabilera
anitzeko esparruan

👤 10 urtetik aitzina

Izena aitzinetik emanaz

ABENDUAREN 18AN ASTEAZKENAREKIN 11:00ETAN

THAUMATROPE ATELERIA EDO IRUDI ANIMATUAREN MAGIA

FR

Gaur egun ezagutzen dugun zinemaren garapenarekin lotutako lehen jostailuetatikoa dugu thaumatropa: aurpegi bakoitza irudi desberdin batez estalia duen kartoizko borobil bat molde lasterrean itzulikaraziz, begi sarearen jarraitutasunak bi irudiak teilkatuak direla sinestaraziz.

Zatozte zuen thaumatropa propioa sortzera !

📍 Pilota plazako xapitoan

👤 5 urtetik aitzina

Izena aitzinetik emanaz



ABENDUAREN 18AN ASTEAZKENAREKIN 14:00ETAN

ELUR PILOTAK FABRIKATZEKO FR

ATELERIA

Zuen elur pilota propioa bilketako ekaiez egitea proposatzen dizue Bil Ta Garbi-k.

Zuen erreximenta ontzi zaharrak eta plastikazko objektuak ekar itzazue!

📍 Pilota plazako xapitoan

👤 Denei irekia

Izena aitzinetik emanez



ABENDUAREN 18AN ASTEAZKENAREKIN 16:00ETAN

MAHAI ERDIKO BAT SORTZEKO ATELERIA FR

Zuen Eguberriko mahaiaren erdikoa apaintzeko ideiak oraindik xerkatzen dituzue eta laguntza ttipi baten beharra duzue zuen gomitak harritzeko? Zuei bereziki zuzendua zaizue ateleria hau! Carine-k lagunduko zaituzte zuen mahai erdikoa ekai naturalez sortzen.

📍 Pilota plazako xapitoan

👤 Denei irekia

Izena aitzinetik emanez



TIPI ETA HANDIENTZAKO EGUBERRI LILURAGARRIA



ESKOLAK

Aurten berriz ere, Ziburuko amaeskola eta lehen mailako ikasle guziei ibilbide artistikoa egitea eskainiko zaie, Eguberriko besten kariatara!

Abenduaren 17an, asteartearekin, erabilera anitzeko esparrura joan dira Marinela eta Saint-Michel eskoletako amaeskolak, *Smile* ikuskizunaren emanaldira, lehen mailakoek *Jump Cut* obra ikusiko dutelarik leku berdinean abenduaren 19an, ostiralarekin.

Ikastolako ikasle guzietan dagokienez, *Versant Vivant* ikuskizuna ikusteko parada eskainia izanen da, erabilera anitzeko esparruan, abenduaren 13an, ostiralarekin.

Urte bukaera Ziburun ongi ospatzeko parada ederra!



IDUSKI EDERRA KLUBA

Eskoletako ikasleen gisara, ikuskizunak proposatuak izanen zaizkie Iduski Ederra Klubeko senioiei: hurrekin batera *Smile* ikuskizuna ezagutzeko parada ukanen dute horrela, abenduaren 17an, asteartearekin, eta *Jump Cut* ikuskizuna abenduaren 19an, ostiralarekin.

Eguberriko apainketan esku hartzen ahalko dute ere, margolaritza ateleriei esker.



AISIALDI ZENTROA

Xapitoan ezarriak izanen diren zurezko bi izei apainduko dituzte aisialdi zentroko haurrek.



MARIE FLEURET HAURTZAINDEGIA

Haurtzaindegikohaurrak eskoletakoekin bilduko dira abenduaren 17an iraganen den *Smile* ikuskizunaren kariatara.

Ziburuko biharko izarren « walk of fame » baten sortzean parte hartzen ahalko dute handienek.



ABENDUAREN 20AN, OSTIRALAREKIN 10:00 ETA 15:ETAN

ESKOLETAKO OLENTZERO

Hiriko eskoletako ikasleek hitzordua finkatzen dizuete haien usaiako Olentzeroren karietara!

10:00etan, herriko etxearen aitzinean igurikatuko zaituztete amaeskolakoek, Eguberriko kantuak abesteko.

Eta handienak hiri zaharreen ibiliko dira, 15:00etatik aitzina, ikazkin famatuaren tresnak biltzeko, xapito azpian musikaz alaitu arratsaskaria partekatu aitzin!

📍 Pilota plazan edo parrokiako gelan
(Pocalette karrikan) euri egingo balu



ARGIBIDE PRAKTIKOAK ETA IZEN EMATEAK

Eguberriko ekimen guziak urririk dira.
Heldu batek beharko du haurrekin egon ateleria guzietan.
Edariak eta janaria eskainiak izanen dira pilota plazako xapitoan
eta erabilera anitzeko esparruan ekimen guzietan!

NOLA EGIN IZENA EMATEKO?

Telefonoz

06 10 75 45 61

Mezu elektronikoz

animations@mairiedeciboure.com

Linean

<https://billetterie-ciboure.mapado.com/>


NON ETA NOLA ATZEMAN KULTURA, ONDAREA ETA ELKARTE BIZIA ZERBITZUA?

Asteartetan 13:15etatik 17:00etara
Asteazkenetik ostiralera 8:15etatik 12:00etara

•

Camille Jullian plaza
Denak Batean eraikina 2. solairua
64500 Ziburu

•

 cultureciboure
www.mairie-ciboure.fr
www.ziburuko-hiria.eus